

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 24a

632. zenbakia

EUSKARA/ Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren haritik, lantegietan euskararen erabilera bultzatzeko urratsak eman nahi dira

Herriko enpresak euskalduntzeko ildo nagusiak aurkeztu zituzten martitzenean

EDU MENDIBIL

Herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko planaren aurkezpena egin zuten martitzenean, prentsaurrekoan. Egutero urrats txikiak eman eta epe luzera helburua zera da: belaunaldi berriak lanean euskaraz aritzeko enpresa mundua prestatzea.

Victoriano Gallastegi alkateak, Anaje Narbaiza Elay lantegiko euskara planaren koordinatzaileak, Joxpi Irastortza Emun Kooperatibako euskara teknikariak, Olatz Olaso lan esparru batzordeko kideak eta Eli Payros Udaleko euskara teknikariak hartu zuten parte martitzeneko prentsaurrekoan.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) 2003an onartu zuen Udalak, 2003-2007 bitarteari begira. Hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko zehaztutako plan estrategikoa da EBPN. Hain zuzen ere, 14 esparru edo sektore desberdin jasotzen dira lantzeko eta esparru horietako bat enpresa munduarena da.

Esan bezala, Olatz Olaso dugu lan esparru batzordeko kideetako bat: "Sindikatu guztietako ordezkariak dei egin diegu eta, era berean, enpresaburuak ere izan nahi dugu. Ordezkari gisa Miguel Lazpiur eta Miguel Angel Agirrezabal Lazpiur enpresakoak izango dira batzordean. Beste hainbat jende ere egongo da batzordean. Batzorde honen egiteko nagusia zera izango da: lan munduan euskara bultzatzeko egingo diren ekintzak proposatu eta jarraipena egitea eta horren berri ematea aholku batzordeari. Orain arte aurten bisitatu beharreko enpresak aukeratu dira eta herritarrei honen berri emateko zer egin aztertu da" esan zuen Olasok.

EUSKARA LAN EREMURA ZABALDU

Proiektu horren dinamizazio lanak Emun Kooperatibako Joxpi Irastortzak egingo ditu. "Poz handia hartu dut udaletxera etorri eta adin guztietako jendea euskaraz jo eta su entzunda. Hala ere, kalean ez ezik, eremu guz-



Joxpi Irastortza lehen planoan eta jarraian Eli Payros, Gallastegi alkatea, Olatz Olaso eta Anaje Narbaiza martitzeneko aurkezpenean.

*Sindikatu
herriko ordezkariak
edo enpresaburuak
izango dira lan
esparru batzordean*

tietara zabaldu behar dugu euskara eta bada ordua lanean ere erabiltzeko. Euskarak nekez egingo du aurrera lanean euskararen aldeko konpromisorik hartzen ez bada. Zelan biziko da euskara eguneko zatirik handienean nagusiki gaztelaniaz egiten badugu?", galdetu zuen Irastortzak".

*Euskara Plana
martxan jartzeko
aurkezpenak egingo
dituzte herriko
lantegietan*

BI ZATI

Plan horrek bi zati izango dituela adierazi zuen Emuneko ordezkariak: batetik, lan munduan euskara bultzatzeko duen garrantzia komunikatzea Bergarako herriri eta bestetik hainbat enpresatan Euskara Plana martxan jartzeko estimulazio lanak egingo dituzte. Besteak beste, sindikatuarekin bilerak eta enpresaburuarekin aurkezpenak egingo dituzte: tamainaz bi enpresa handitan eta tamaina erdiko 11 enpresatan egingo dituzte aurkezpenok. Horien ostean, enpresa txikiak deituko dituzte gauza bera egiteko: "helburua euskara plana martxan jartzeko enpresak animatzea da", esan zuen Irastortzak.

Euskararen erabilera handitzeko konpromisoa hartzen duten enpresetan plana diseinatu eta inplementatu egingo da. Horretarako Udalak eta Jaur-laritzak enpresa horiek diruz lagunduko dituzte.

Udaletxea eta hainbat lantegitako adibidea

Victoriano Gallastegi alkateak udaletxeko adibidea aipatu zuen martitzeneko aurkezpenean: "Orain dela 20 urte Udaleko jardun ia osoa erdara hutsez zen eta nekez pentsatuko genuen noizbait osoko bilkure-tako edo gobernu batzordeetako aktak edo aurrekontuak euskara hutsez egingo zirenik. Gaur egun ia bilera guztiak euskaraz egiten dira eta jardun idatzia ere gehien-gehiena euskaraz egiten da". Anaje Narbaizak esperientzia luzea du

enpresa mundua euskalduntzeko orduan. Soralue eta Geysen enpresen adibideak ekarri zituen gogora: "Soralucent 1999an hasi ziren euskara planarekin eta euskararen erabilera %50 da egun. Geyseren, berriz, 2002an hasi ziren eta %25 inguruk erabiltzen dute euskara lanean".

Narbaizaren arabera, pazientzia behar da baina plana egingarria da, "belaunaldi berriak euskaraz egiteko gertu daudelako eta euskaraz hazi direlako".

AZPEITXI

Jatetxea

- Oilaskoa
- Paella
- Gisatua
- Entsalada errusiarra
- Patata-tortilla
- Erredondoa saltsan

Arenerreka 13 • 943 76 55 00

ATXEGA ARDOAK S.L. LOPEZ OJEDA

- Mahaiko ardoa: Lopez Ojeda
- Errioxakoak: Señorío de Ojeda eta Tinto Covila
- Nafarroakoak: Castillo de Ojeda
- Ondua: Marques del Puerto
- Rueda Ferrosol
- Txakolina: Santarba
- Sagardoa: Bere-Aran

Amillaga 25 • 943 76 27 76 / 38 52

ETXAGI JATETXEA

- Patata-tortilak
- Oilaskoak
- 14:30ean bertara bazkaria eramango dugu!

Masterreka 8 • 943 76 53 12

Raizabal

- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Tarta bereziak

Artekalea 9 • 943 76 11 83
Bidekurutzeta 20 • 943 76 12 19



- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Bonboiak

San Pedro 9 • 943 76 10 51

Mujika
gözotegia



- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Bertan egindako natazko eta marrubizko izozkiak

Artekalea 3 • 943 76 10 34



MANSO HERMANOS

- Errioxako ardoa eta beste izendapen batzuk
- Sagardoa
- Likoreak
- Heineken
- Ura

Amillaga 11 • 943 76 14 48
Faxa: 943 76 14 49

**San Martzialetan
zure zerbitzura**

JAIK/ Astelehenera arte erromeria egunerako mahaiak eskuragarri kultura etxean

San Martzialera igoera izango da eguenean

E.M.

Eguenean, ekainak 30, San Martzial eguna ospatuko da Bergaran. Ohikoa denez, Santa Marinatik San Martzialera igoera egingo da 07:30ean, letania errezatuz. Mezaren ostean txokolatea hartzeko aukera izango da. Erromeria uztaillaren 3an ospatuko da.

Azken urteotan jende ugari hartu izan du parte San Martzial eguneko igoeran. Ohikoa denez, 07:00etan kanpaien jotzea hasiko da Santa Marian eta ordu erdi beranduago hasiko da igoera. hara heldutako maza izango da San Martzialgo ermitan eta mezaren ostean txokolatea hartzeko aukera izango da, San Joxe-

pe erretiratuen elkarteko kideen eskutik.

San Pedro eta San Martzialeko jai egitarauarekin hasteko Bergarako Orkestrak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, San Pedro parrokian, 20:00etan.

MAHAIK, ASTELEHENERA ARTE
Bestalde, astelehenean, ekainaren 27an, bukatuko da San Martzialgo erromeriarako mahaiak

alokatzeko epea. Eskatzaile bakoitzak ezingo du bost mahai baino gehiago eskatu. Mahai bakoitzaren alokairuak 20 euro balio du eta eskatzaile bakoitzeko 100 euroko fidantza jarri beharko da. Interesatuak kultura etxera, Errotalde jauregiara jo dezakete.

Eskaeraren arabera mahai kopurua eskatuko dute (iaz 232 izan ziren). Mahai bakoitza zortzi lagunek erabiltzeko modukoa da.

Era berean, herri jolasak antolatu eta aurrera eramateko laguntzaileen bila dabil Jaietako Batzordea. Soka tira eta txinga eramatea antolatzen laguntzeko gertu daudenekin bilera egingo dute astelehenean, hilaren 27an kultura etxean, 17:00etan. Bilerara joaterik ez dutenek 943 77 91 59 telefonora dei dezakete.

Mezaren ostean txokolatea banatuko dute eguenean San Martzialen



Ohiturari jarraituz, San Martzialgo ermitan meza izango da eguenean.



Helduen Eskolakoek ikasturtea amaitu dute oraingo astean

Helduen Eskolako ikasle eta irakasleek eguaztenean amaitu zituzten 2004/2005 ikasturteko eskolak. 180 ikasle inguru aritu dira Irizar jauregiko ikastetxean. DBH, ingelesa, euskara, unibertsitaterako sarrera edota irizarre zuzendutako gaztelera eta gidatze baimena lortzeko eskolak eskaintzen ditu eskolak. Hurrengo ikasturtea irailaren 13an hasiko dute eta irailaren 1ean zabalduko dute matrikula egiteko epea. Bien bitartean, ondo ibili oporretan!

LABUR

1955ean eta 1960an jaiotako bergararrek urteko afaria izango dute zapatuan

1955ean jaiotako bergararrek afaria egingo dute bihar, zapatua, Zabala jatetxean, 21:00etan. Frontoian elkartuko dira, 20:00etan.

Bestalde, 1960an jaiotakoek ere bihar izango dute afaria, Zume-laga jatetxean.

Udan liburuekin eta ikus-entzunezkoekin gozatzeko aukera Udal Liburutegiaren eskutik

Inguruko herrietako liburutegiak lankidetzan, *Biblioporrak* izeneko gidatxoak kaleratu du Bergarako Udal Liburutegiak.

Liburuez gain, DVD eta CD eskaintza ere jaso dute aurtengoan. Irakurtzeko eta ikus-entzunezkoekin gozatzeko interesa dutenek Udal Liburutegira edo 943 77 91 62 telefonora jo dezakete.

Diplomen banaketa eta Musika Eskolako ikasleen kontzertua gaur arratsaldean

Gaur, egubakoitza, 2004/05 ikasturteko diplomaren banaketa egingo dute Musika Eskolan. Lehen solairuko entsegu aretoan egingo dute ekitaldia, 19:00etan.

Aurten 32 ikasle izango dira diploma jasotzen dutenak. Diploma banaketaren aurretik kontzertua eskainiko dute Musika Eskolako ikasleek.



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak
orokorrean

•
Pintura industrialia

•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...


610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegarieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

FUTBOLA/ Kadete eta senior mailetako nesken finalak eta gizonezko beteranoenak

Ipintzako txapelketako lehen finalak hurrengo astean

E.M.


Ipintzako futbol txapelketa aurrera doa eta hurrengo astean lehen finalak jokatu dira: kadete eta senior mailetako nesken finalak eta gizonezko beteranoenak izango dira ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean. Txapelketa uztailaren 15ean bukatuko da.

Ostegunean, ekainaren 30ean, alebin eta kadete mailako nesken finalak jokatu dira: 18:00etan alebin mailakoa eta 19:00etan kadete mailakoa. Bi mailetan 3. eta 4. posturako partiduak jokatuko dira aurretik.

Bestalde, senior mailako nesken txapelketako azken jardunaldia egun berean jokatu da, 20:00etan hasita. Finala, berriz, uztailaren 5ean izango da.

BETERANOAK, UZTAILAREN 1EAN

Beterano mailako gizonezkoen txapelketan 10 talde izan dira lehian aurtengo ekitaldian. Martitzenean, hilaren 28an, finalerdiak jokatu dira, 19:30ean hasita eta finala hurrengo egubakoitzean, uztailaren 1ean, izango da, 19:45ean. Aurretik, 38 urtetik gorakoen finala egongo da, 18:45ean: Txipiron eta Ezinleike taldeak izango dira aurrez aurre final horretan.



Maila ezberdinetan 600 bat jokalarik dihardute aurten Ipintzan.

Futbol 11ko txapelketari dagokionez, oraindik partidu dezentek izango dira: bihar, zapatua, jardunaldia izango da 09:00etan hasita eta astelehen eta eguaztenterako ere partiduak iragarrita

daude, 19:00etan. Finala uztailaren 15ean izango da.

Antolatzaileek emandako datuen arabera, 600 bat jokalaria ari dira aurten Ipintzan, maila guztiak kontuan izanik.

Udaberriko Txapelketako finalekin denboraldia agurtu dute gaztetxoak

E.M.

Udaberriko Txapelketako finaletan, benjamin mailan, Josu Zezegak eta Mikel Gutierrezek 18-17 irabazi zieten Gorka Eraña eta Euken Azpeitiari; Mikel Zuluetak eta Josu Erranek Josu Marzo eta Aitor Kortabarria mendean hartu zituzten, 18-14. Alebin mailan, Pello Etzaniz eta Daniel Diez Julen Jorge eta Andoni Najerari nagusitu zitzaizten, 18-13. Eta infantil mailan, Iñigo San Josek eta Mikel Gallastegik Eneko Zabaleta Igor Igartuari irabazi zieten (18-10) eta Jokin Osak eta Beñat Rezustak Lander Ugarte eta Andoni Fernandezi (18-6). Lau t'erdian, Andoni Elortzak Ibon Berraondori irabazi zion, 18-16.



Egubakoitzeko finaletan parte hartu zuten pilotari gaztetxoak.

LABUR

Ariznoako kadete eta gazte mailtako taldeek Euskadiko Txapelketa eskuratu dute

Ariznoako kadete eta gazte mailtako taldeek urrezko domina eskuratu zuten Euskadiko Txapelketan, Gasteizen. Kadete mailako taldean Oihane Agirre, Lorea Albeniz, Eider Carrasco, Itxaso Garmendia eta Olai Gastain aritu ziren. Gazte mailako taldean, berriz, Irati Arteaga, Maialen Legorburu, Virginia Odriozola, Sarai Ruiz eta Izargi Vegak jardun zuten.

Banako saioetan, Virginia Odriozolak brontzezko domina eskuratu zuen, Irati Arteaga laugarrena izan zen, Uxue Arregi seigarrena, Izargi Vega zazpigarrena eta Maialen Legorburu zortzigarrena. Kadete mailakoan artean, Eider Carrascok bosgarren, Sonia Corredera eta Ane Susaeta entrenatzaileekin denboraldi bikaina egin dute.

All Blacks taldeak irabazi zuen areto futboleko txapelketaren finala zapatuan

Labegarrietako areto futboleko txapelketari amaiera emateko, Errortagain eta All Blacks txapelketaren arteko finala jokatu zen zapatuan. All Blacks oñatiarrek irabazi zuten, 0-2. Aurretik kopa irabazi zuten All Blacksek.

Gazte mailako bikotea Oñatin irabazi beharrean Debarroko finalean sartzeko

Eneko Muguruza eta Jon Larrañaga gazte mailako bikoteak 21-22 galdu zuten Oñatiko bikotearen aurka.

Debarroko finalerdietako itzulerako partidua gaur, egubakoitza, jokatu da Oñatiko Zubikoa pilotalekuan, 18:15ean.



Aitor Ocampos garaile San Antonion

Aitor Ocampos txirrindulari tolosarrak irabazi zuen zapatuan jokatuak Honorio Agirregabiria Memoriala. 114 partaide izan ziren San Antonioko txirrindularitza sariaren 69. ekitaldian. Beroa (38°C inguru) izan zen protagonistak nagusietako bat: makina bat sufritu zuten txirrindulariek ibilbideko 58 kilometroetan. Helmutara hirukote bat iritsi zen ihes eginda: Iban Caballero bergararrak (argazkian) hanketan arazoak izan zituen azken metroetan eta hirugarren postua lortu zuen; bigarren postua Beñat Blazquez donostiarrentzat izan zen.



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmología Clínica

www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

MUSIKA/ Gabon alderako estreinatu nahi dute *Seussical the musical* ikuskizunaren bertsioa

'Seussen mundua' prestatzen ari da Orfeoia

EDU MENDIBIL

Bergarako Orfeoiko kideak *Seussen mundua* ikuskizun musikala prestatzen ari dira. *Seussical the musical* ikuskizunean oinarritutako lana da eta Gabon alderako estreinatu nahi du Orfeoia.

Bere jaioterrian oso ezaguna den arren, Theodor Seussen lana ez da gurean gehiegi ezagutzen. Hala ere, Seussekin lan oparoa utzi zuen: 50 liburu inguru idatzi zituen eta bere lanen 100 milioi kopia saldu dituzte mundu zabalean. Hizkuntza askotara itzulita daude haren liburuak. 1904. urtean Springfielden (Massachusetts) jaioa, 1991n hil zen Seuss.

Orfeoiko kideek *Seussical the musical* ikuskizuna hartu dute oinarri euren produkzio berri-

rako. Dagoeneko entseguekin hasi dira; zapaturu elkartzen dira Seminarioan.

GABON ALDERAKO GERTU

Ikuslego zabalari zuzendutako ikuskizun musikala da *Seussen mundua*. Valen Moñux izango da zuzendaria eta jende ugari hartuko du parte: kantariak, musikariak, dantzariak eta antzezleak, besteak beste. Horton elefantea eta bere lagunak dira protagonista nagusiak.

Animaliak protagonista, ikuslego zabalari zuzendutako musikala da

Orfeoia eskutik, Seussen lan bat euskaraz antzeztuko da lehenbiziko aldiz. Rosa eta Blanca Narbaiza arduratu dira testuaren itzulpenaz.

Hasiera baten, Gabon alderako estreinatu nahi du Orfeoia. Hala ere, estreinaldiaren data zehazteke dago oraindik. Era berean, zein antzokitan izango den estreinaldia ez dute erabaki. Producciones Serrano enpresa arduratuko da ikuskizuna saltzeaz.

'OLIVER!' EN ONDORENGOA

Oliver! arrakastatsuen ondoren, Orfeoia egingo duen hurrengo muntaia handia izango da *Seussen mundua*. Ez dute erraza izango orduan lortutako arrakastari eustea: 1999an Bergaran estreinatu ondoren Hego Euskal Herriko antzoki nagusietara eraman zuten *Oliver!*. 11.000 lagun inguruk ikusi zuten.



Seussical the musical ikuskizuneko irudi bat.



Bergarako Orkestrak emanaldia egingo du gaur San Pedron

Bergarako Orkestra Sinfonikoak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, San Pedro parrokian, 20:00etan. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, Orkestrako kideek honako pieza hauek joko dituzte: *Concerto grosso 12. zenbakia* (Corelli), *Sinfonia sol menorren 40. zenbakia* (Mozart), *Patrizia* (Glez. Chirlaque), *Hook* (Williams) eta *Aritzeta* (Glez. Chirlaque).

LABUR

Idoia Azkarateren margo erakusketa Donostiako Kursal kafetegian ikusgai

Idoia Azkarate bergararraren margo erakusketa ikusgai dago Donostiako Kursal kafetegian (Ramon Maria Lili 2), ekainaren bukaerara arte. Azkaratek 25 koadro inguru jarri ditu ikusgai. Bakarka egiten duen bigarren erakusketa da Donostiakoa. Aurretik Bergarako Nahikari tabernan erakutsi zuen bere lana.

Lobo Electrico eta La Banda del Abuelo taldeek joko dute zapatuan gaztetxean

Bihar, zapatua, *Ekintza zuzena* aldizkariaren aurkezpena egingo dute gaztetxean, 18:00etan.

Gauean, berriz, kontzertua izango da, 22:30ean. Lobo Electrico eta La Banda del Abuelo taldeek joko dute.

Luis Laskurainen margoak Arrasateko Arregi galerian ikusgai, ekainaren 30era arte

Luis Laskurain margolari bergararraren erakusketa ikusgai dago Arrasateko Arregi arte galerian (Maalako Errebala, 8), ekainaren 30era arte. Aste barruan 09:00etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 10:00etatik 13:00ak arte dago aretoa zabalik.

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

ZAHARRAK BERRI/ Irailaren amaieratik urriaren hasierara bitartean egongo dira Rosasen

San Joxepe erretiratuen elkarteak bidaiak kulturala antolatu du Girona ezagutzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Erretiratuek bidaiatzeko nahiko denbora eta gogo dutenez, eurendako irteera antolatu dute San Joxepe erretiratuen elkarteak. Bidaia irailean egingo badute ere aurrez izena ematea komeni da, eta jadanik epea zabalik dago horretarako.

San Joxepeko erretiratuen elkarteak Gironara bidaiak antolatu du. Bergaratik irailaren 26an irten eta urriaren 2ra artean egongo dira Katalunian, Roses herrian. Ondoren, bertatik egingo dituzte hainbat irteera inguruak ezagutzeko; izan ere, bidaiak kulturala da San Joxepeko antolatu duena.

Lehenengo egunean Roses herrian itsasontzia hartu eta Cadaques arrantza herria bisitatu dute; bertako eliza eta Sant Pere de Rodes monasterioa ezagutu dituzte.

Alt Emporda bailarara egingo dute irteera bigarren egunean. Boadellako urtegia eta Sant Llorenc de la Muga Erdi Aroko herria ikusiko dituzte.

Castello D'Empuries herrian hasiko dute hirugarren eguneko ibilaldi turistikoa. Ondoren Kataluniako Veneziara joango dira, Empuriabravara. Arratsaldean, berriz, Girona hiriburura joango dira alde zaharra katedral gotikoa eta auzo judutarra ikusiko dituzte bertan.

Peraladara joango dira laugarren egunean goizez; arratsaldean, Figueresen Dali museoa ikusteko aukera izango dute.

Azken egunean ere ez da faltako bisita kulturalik. Pals eta Peratellada erdi aroko herriak ikusiko dituzte Baix Emporda bailaran. L'Escala arrantza herria joango dira gero, eta bertan bokartak dastatzeko aukera izango dute.

Bidaiak gutxi gorabehera 360 euroko kostua izango du. Prezioan sartuta daude bidaiak, egonaldia pentsio osoan, bidaiako jatordua eta baita aseguru ere.

Izena emateko uztailearen zortzia baino lehen joan behar da San Joxepeko idazkaritzara. Ordainketa, berriz, Euskadiko Kutxan egingo dute bidaiara joan nahi dutenek.



San Joxepeko erretiratuek besteak beste Girona hiriburua bisitatu dute.



San Joxepekoak Igeldotik Oriora

San Joxepe elkarteak lagunek irteera antolatu dute uztailearen 12rako. Goizeko bederatzietan autobus geltokian irten eta Igeldora joango dira. Bertatik Oriora arteko bidea egingo dute mendiz, itsas bazterrak ikusiz. Mendi ibilaldiaren ondoren, Orioko hondartzan izango dute bazkaria. Izena emateko San Joxepeko idazkaritzara jo beharko da uztailearen 9a baino lehen. Irteeran parte hartzeko 20 euro ordaindu behar dira. Prezioan bidaiak eta bazkaria daude sartuta.

LABUR

Alargunek Sovi pentsioa jasotzeko aukera izango dute

Debagoieneko pentsiodunen Apalde elkarteak aditzera eman duenez, irailtik aurrera Sovi deituriko pentsioa kobratu ahal izango dute alargunek.

Horretarako baldintza bakarra bete beharko da: 1967. urtea baino lehen gutxienez 1.800 egun kotizatuak izatea gizarte segurantzian.

Sovi pentsioa jasotzeko aukera dutenek euren aurrezki kutxan beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrek 13 behea. Bergara
943 76 55 00



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95




IRURAK MARGOAK

DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

MINGAINARITIRAKA



Ander Laborda

TXISTULARIA

Sei lagunek dihardute herriko txistulari bandan, eta Ander da denetan gazteena; 21 urte ditu. Ikasketak bukatu eta lanean hasi berri da Arrasateko lantegi baten. Txistuaz gain, denbora librean, asko gustatzen zaio gitarra jotzea ere.

Txistularia izanda, goiztiarra izango zara, ezta?

Beharra dagoenean, beharko goiz jaiki!

Jaietan kalejiran ateratzea asko kostatzen zaizu?

Saiatzen naiz goizago etxeratzen, baina kosta egiten da beti; izan ere, domeketan edo jaietan irteten gara.

Zergatik txistua eta ez beste musika tresna bat?

Txikitatik gustatu izan zaidalako.

Ez dago txistulari asko herrian...

Bada, ez; txistulari bandan seik bakarrik dihardugu.

Txisturako gustuko pieza bat?

Kalejirak gustatzen zaizkit gehien.

Beste musika tresnarik jotzen duzu?

Bai, gitarra; lehen rock talde baten jotzen nuen.

Musika talde bat?

The Clash.

Txistua jo bai, baina dantza egiten duzu?

Ez; ez zait askorik gustatzen dantza egitea, eta egia esan, lotsa pixka bat ere ematen dit, dantzari txarra naiz eta.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Mendira joatea, eskalatzea, gitarra jotzea...

Mendi bat?

Orkatzategi, Aitzorrotz...

Hondartza ala igerilekua nahiago?

Hondartza; lagunek eramaten nauten guztietan joaten naiz.

Ez daukazu autorik?

Ez, eta gidatzeko baimenik ere ez; nahi dut atera, baina horretan hasteko gogo txikia daukat.

Asteburu baterako plan ideala?

Neskalagunarekin toki lasai batera joatea.

Bidaia bat egitekotan, nora joango zinateke?

Amazonas ezagutzera.

Amets bat?

Lanik egin gabe bizi izatea.

Oraintxe hasi zara-eta lanean!

Bai, baina lanean hasi aurretik ere horixe pentsatzen nuen.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Jabier Gonzalez

ITALIA / 2003ko urrian

Reala izan zen Italiara joateko aitzakia, Europako Kopako partidua jokatzeko zuten txururdinek Turinen, hango Juventus taldearen aurka. Esan bezala, horixe hartu genuen aitzakia, eta astebeteko bidaia egin genuen Italia aldera. Koadrilako hamahiru lagun joan ginen.

Lehendabiziko hiru egunak Florentzian egin genituen. Ikusgarria da, ederra, benetan. Oso ondo ibili ginen; goizeko zortzietan jaiki, motxilak bizkarrean hartu eta kilometro mordo egiten genuen egunero, oinez. Auskalo zenbat kilometro egin genuen egun haietan!

Egun baten, Sienaara joan ginen egun-pasa; ordubete ingurura dago, autobusez. Hiri txikia da, baina oso polita. Eliza oso ederrak daude hantxe. Kontatu zigutenez, Siena ezaguna da Italian egiten dituzten zaldi lasterketa bereziengatik. Hiriko auzo bakoitzak bere zaldia eta zaldizkoa ditu, eta badirudi ia dena libre dela lasterketa horietan.

Florentziatik Turinera joan ginen, partidua ikustera. Trenez egin genuen bidaia hori, lau bat ordukoa. Turin, egia esan, ez genuen ikusi. Bueno, partidua ikustera etorri ez zirenak ibili ziren hirian zehar, eta museo bat bisitatzen ere egon ziren. Oso ondo pasatu genuen partiduan,



"Realaren partidua aitzakia hartuta, astebeteko bidaia egin genuen Italiara hamahiru lagunek"

"Bitxia da ikustea Venezian San Marcos plaza zela estaltzen den urez, mareak gora egiten duenean"

baina, zoritxarrez, 4-2 galdu zuten Realak.

Turindik, berriz, Veneziaara joan ginen; izugarri gustatu zitzaidan. Hain da berezia hiria! Han bizimodua kanalaren inguruan egiten dute. Pentsa, hileta-txalupa bat ikusi genuen! Txalupa bat zeramaten gainean hilkutxa bat zeramaten, bere lore eta guzti.

Ezer aipatzekotan, San Marcos plaza ezaguna aipatuko nuke; oso bitxia da ikustea mareak gora egiten duenean, plazan bertan urak zela gora egiten duen eta zela jartzen dituzten oinezkoendako plataformak. Oso estuak dira plataforma horiek, eta udaltzainak egoten dira, zirkulazioa zaintzen: jendea berbetan geratzen denean, eta beste jendearen joan-etorria oztopatzen duenean, udaltzainak joaten zaizkio mugitzeko esatera. Murano uhartean ere egon ginen, hango beira fama-tua zela egiten zuten ikusten.

Bidaia hartan, bi aterpetxetan egon ginen; Italia garestia den arren, aterpetxeak nahiko ondo daude prezioz. Bereziak

dira hango aterpetxeak; gehientsuenak ez dira mistoak, hau da; edo neskendako bakarrik edo mutilendako bakarrik izaten dira.

AINTZANE IRIZAR



Jabi eta bere koadrilakoak, Veneziaiko San Marcos plazan.

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

BONOFOTOA



Zein da San Juango baserri honen izena?

MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JUANITA MURILLOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Juanita!
Galderaren erantzun zuzena: Argizain.



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Mendisol ekilore-olioa

Litro bat

0,77 €

128 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

ELGETA


Ozkarbiko mutilak dantzan

Ozkarbi elkartearen baitan zegoen garai batean dantza taldea, eta beste herri batzuetako euskal jaietan ez ezik herrian bertan ere egiten zituzten erakustaldiak. Mutilek eta neskek dantzaten zuten, baita batzuetan elkarrekin ere.

Argazkia udan ateratakoa da, berotik babesteko etxean azpian gordeta baitaude ikusleak.

Aurretik atzera eta ezker-eskuin, hauek dira zahagi dantzan dihardutenak: Jose Mari Iturriotz, Juan Mari Arantzeta, Juan Carlos Sancho, Felix Bolinaga, Juan Ramon Basauri, Alberto Lopez, Jose Mari Larrañaga, Luis Mari Arantzeta Juan Andres Aretxaga eta Patxi Basauri.

Argazkia: Dionisia Arantzeta



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

EGUBAKOITZA, 24

GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05

ZAPATUA, 25

ESTELLA. Matxiategi 5 . . 943 76 19 63

DOMEKA, 26

ESTELLA. Matxiategi 5 . . 943 76 19 63

ASTELEHENA, 27

MOZOS. Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15

MARTITZENA, 28

CAMACHO. Oxirondo 4. . . 943 76 11 74

EGUAZTENA, 29

ZABALA. Barrenkale 25. . . 943 76 16 87

EGUENA, 30

GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

- Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa . . 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa . 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak . . . 943 76 51 06

GARRAIOAK

- Taxiak 943 76 19 50

UDALA

- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

URTE-MEZAK

- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20,
16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00,
19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20,
10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20,
13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20,
17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30,
19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Nola amaitu duzu ikasturtea? Zein asmo duzu udarako?



MIKEL MANSO

Ikasturtea ongi joan da, beraz, udarako baditut planak. Lehenengo Zuhatzara joango naiz karate taldekoekin; eta ondoren, Urdirotzera udalekue tara. Aurrez ere joan naiz eta gogoko dut.



MIREIA MANSO

Lan gehiegi izan dugu eskolan, baina nahiko ongi amaitu dut kurtsoa. Oporretan lagunekin jolastuko dut. Arotzeneara joango naiz lehenengo udalekue tara; eta ondoren, gurasoekin Donostiara.



KATTALIN MUJIKA

Ongi amaitu dut ikasturtea, azterketa askorik ez dugu izan gainera. Orain, oporretan, lagunekin jolastuko naiz, hockey ikastaroan eman baitugu izena. Gero, gurasoekin Eivissan (Ibiza) pasatuko ditut egun batzuk.



AINTZANE CONDE

Ongi joan da ikasturtea, oso erraza izan da gainera. Orain, oporretan, lagunekin igerilekura joango naiz eguraldi ona egiten duenean, baita hockey ikastaro ere; eta gero gurasoekin Pirinioetara.



JULEN DE DIOS


Ikasturtea ongi joan da eta azterketa ia guztiak ongi egin ditut. Oporretan, udalekue tara joango naiz lagun batekin Zuhatzara hamar egunerako. Gero, gurasoekin egingo dut bidaia, Kanariar Uharteetara-edo.



OIER ELORTZA

Ikasturtea eta azterketak ongi amaitu ditut. Oporretan ez naiz hemen, Bergaran, geratuko; nonbaitera egingo dut bidaiaren bat gurasoekin, baina oraindik ez dugu erabaki nora joango garen.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ALDAPA GOGORRA Joakin Ostolatzak deitu digu kexa bat plazaratzeko. Katabiatik Zurraderoko zubira igotzeko eskailerak jarri dituzte, eta gurgildun aulkiak eta umeen karroak erabili behar dituztenendako gehiegizko aldapa dagoela iruditzen zaio Ostolatzari: "Tourrean ere ez dute horrelako aldapa gogorrik", esan digu. /E.M.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



—Betik izan da aura aparteko samarra.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA

“Ni ez naiz Eibarreko talismana. Nik nire lantxo egiten dut gauzak ondo irten daitezen. Baina hau ez da talisman kontuekin lortzen, baizik eta lan onarekin. Eta aurtengoan, taldeak lan bikaina egin du. Pena da azkenean ezin mailaz igo izana; guk ezin izan genuen irabazi, eta beste bi taldeek irabazi egin zuten. Hala ere, ez dut uste jendeak pentsatuko duenik igo ez delako porrot bat izan denik. Beti dago gaizki pentsatzen duen baten bat, baina zapatuan Ipuruan eta Eibarko kaleetan bizi zena ikusita, uste dut Eibarko jendea eta Eibar zaleak oso pozik daudela taldeak aurtun egindako lanarekin”
JUAN JOSE ARRIETA / Eibar futbol taldeko zuzendaritzako kidea
'Asteleheneko Goienkaria' / 05-06-20

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 15	10 °C		
MAXIMOA Zapatua, 18	38 °C		
ASTEKO EURIA (l/m ²)	0,5 L		
	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 15	29 °C	10 °C	- l/m ²
Eguena, 16	24 °C	12 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 17	32 °C	15 °C	- l/m ²
Zapatua, 18	38 °C	16 °C	- l/m ²
Domeka, 19	28 °C	14 °C	- l/m ²
Astelehena, 20	24 °C	18 °C	0,5 l/m ²
Martitzena, 21	22 °C	18 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

BERAIEKDIÑOĖ/ Andres Osa Sakona



San Juan sua eta Madrilen saltoak

San Juan suak eta udaberriak pasoa eman dio udari. Euskal Herriko herriak eta auzoak sugar eta txinparta tartean ikusi dira. Urteko egun luzeena ere oraintxe izan da. Den dena eguzkiaren ardatzean doa. Eguzkia jainkotzat hartu izan da eta hortik sortu dira San Juan inguruko jaialdiak, Euskal Herrian benetan maitatuak eta ugariak.

Iunabar txinpartatsua izan da, San Juan bezpera. Su gaintetik salto eginaz ha maikatzeko oroitzapen elikatzen da: Bizkai eta Arrasate bueltan suaren inguruan kanta hau izaten zen eta izaten jarraitzen du oraindik: "San Juen, San Juen/ Arrautza bi kolkuen,/ beste bi altzuen./ Sorgiñek eta lapurrek erre, erre./ Artuek eta gariak gorde, gorde/ Gora San Juen/ biher da San Juen". Ohitura hauek gaurdaino ere irauten dute baina galzten doaz, tamalez. Su garraren gaintetik saltoka ikusi izan ditugu, ohiturari jarraiki zaharrak, gazteak eta umeak.

Baina injustiziarri gaina hartuz pozik eta saltoka, elastiko gorri soinean, gazte talde ederra ikusi dugu egun haue tan Madrilgo Entzutegi Nazionalan, besarkatzen. Garzon "arkitekto" eskizofrenikoak, la guntzarik gabe ez noski, "terrorismoa" oinarritzat hartuta eraiki zuten "zigor etxea" erortzen hasi dela dirudi. Ea lurperatzen den behin-go!

Urte mordo bat barruan egon dira eta orain epaileak zer esango eta ez direla "talde terroristak". Kalifikazio horren ordez, barruko egonaldia justifikatzeko, zerbait asmatu egin behar eta "legez kanpoko taldeak" omen dira. Edozein modutan ere politikari eta tertulianoen artean harrotu ditu hautsak.

San Juan suaren hondarrak, etxetara eramateko ohitura izaten zen su berria pizteko. Madrilgo gazte hauek sortu dituzte txinpartak, garrak eta hondarrak beste gazte askoren garrantasunaren grina pizteko. Zorionak!

“Suaren gaintetik saltoka ikusi izan ditugu ohiturari jarraiki zaharrak, gazteak eta umeak”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegia
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 24a / 249. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Udalak lagundutako hogeit hamar etxebizitza eraikiko dituzte Eguzki auzoan


AINZANE IRIZAR

Proiektu sorta berria prestatzen dihardute Udaleko arduradunek. 20 etxebizitza besterik ez dute egingo maristena zegoen tokian, eta Sagastin, berriz, kultura-gizarte etxearendako pentsatuta zegoena baino eraikin txikiagoa.

Aurreko asteko egubakoitzean, ekainak 17, osoko bilkura egin zuten. Hantxe, besteak beste, hainbat arau aldaketa onartu zituzten. Hasierako onarpena eman diete arauen aldaketoi; orain, jendarean jarriko dituzte eta iradokizunak egiteko aukera egongo da. Uztail amaierarako behin-behineko onarpena ematea espero dute. Gero, Diputazioak onartu beharko ditu arauen aldaketa horiek, behin betiko.

Aldaketa horiek egingo dituzte zehazten ari diren proiektuak aurrera eraman ahal izateko.

Batetik, lehen maristen eraikina zegoen tokian 20 etxebizitzako eraikina egingo dute; etxebizitza guztiak Udalak lagundutakoak izango dira. Beheko solairuan kirol eta kultura jardueretarako lokalak egingo dituzte. 770 metro koadro



Eguzki auzoko etxeen alboan, maristen eraikina zegoen tokian, eraikiko dituzte hogeit hamar etxebizitzak.

dro izango du solairu horrek. Gainerakoek, berriz, etxebizitzaren solairuek, 400.

Sagasti auzoko zelaietan, berriz, eraikin txikiagoa egingo dute kultura-gizarte etxearen

dako; izan ere, hainbat jarduera beheko eraikinean jarri ahal izango dituzte.

Bestalde, San Jose azpiko aldean aparkalekuak egingo dituzte; aurrera jarraitzen dute asmo

horrekin. Hori bai, ez dituzte denak batera egingo, faseka bai zik. Aparkalekuok errekararen beste aldearekin lotzeko zubia ere egingo dute, Beheko auzoaren eta jolastoki gorriaren artean.

HERRITARREN HITZA / Patxi Olabarria • Langilea

Kordobatik Aizpurutxora

Leherro hauek Kordoban idazten ditut. Ez naiz etorri. Mezquita ikustera, preso dagoen laguna ikustera baizik.

Antzuolatik hona dauden 800 kilometroetan pentsatzen etorri naiz zertaz idatzi. Horrenbeste kilometrotan badago pentsatzeko astia eta bueltako beste 800ak egin aurretik idaztea pentsatu dut.

Madril parean, Azkoitian gertatutakoa entzun dut irratian. Azkoitian herritarren borondatea betetzen hasi da eta Antzuolan zergatik ez? Soluzio oso erraza da: zinegotzi kargu hartu ez duten PNV-EAko per-

tsonek errenuntzia aurkez dezatela eta horrela 427 antzular Udalean ordezkatuak izango dira.

Eta bat-batean Aizpurutxo gogoratu naiz. Ze kurioa! Aizpurutxo azkoitiarrei herri borondatea errespetatzen hasi zaie eta Aizpurutxo antzularrek Udala antidemokratikoa dute.

Madril pasatu eta 100 kilometrora, Tembleque izeneko herritxoan zerbait har-



"Aizpurutxoko antzularrek udal antidemokratikoa dute"

tzera gelditu gara. Herri honetan sekulako plaza dute eta bat-batean Antzuolako plazaz gogoratu naiz. Udala arduradunek Antzuolako erreka plazan zabalteko asmoa dute. Beraiek diote udallete parean zubia jarrita plaza funtzionala izango dela. Guk diogu ez dela funtzionala izango. Hika-mikak alde

batera utzi eta herriko jaietarako ariketa sinplea bezain prak-

tikoa proposatzen dut: jar ditza gun hesi hori horietako errekararen baranda jartzeko asmoa dagoen lekuan. Horrela, zuloa egin aurretik, beranduegi izan baino lehen, errealitatean (eta ez ordenagailuz eginiko marrazkitxo bidez) ikusiko dugu nola geldituko litzatekeen plaza.

Portzierto, azkenean plaza zabaltzen bada, Kristinak laster argitaratuko duen Antzuolako toponimiari buruzko liburuan Herriko Plazari izena aldatu beharko diogu, munduan ez baita existitzen Herriko Plaza deitzen den zubirik.

LABUR

Gurutz Larrea Euskadiko txapeldun

Zapatuan, hilak 18, Lesakan jokatu zuten gazteen mailako Euskadiko txirrindulari txapelketa eta Gurutz Larrea antzuolarrak irabazi zuen. Sei txirrindulariko taldean iritsi zen Gurutz eta esprintean nagusitu zen. Orain dela gutxi, berriz, erlojuaren kontrako Gipuzkoakoa irabazi du.

Egunkariaren kioskoa uztailean itxiko dute

Ana Herrero uztailearen 31n lagako dio egunkariak saltze-ari. Kioskoa itxi egingo du, eta Surpe tabernan ere ez dute salduko egunkaririk. Horrela, beste inork ardura hori hartzen ez badu, herrian egunkaririk gabe geratuko gara. Hogeit hamar urte egin ditu Ana zeregin horretan.

Miren Urriategi izango da bake epaile berria

Aurreko asteko osoko bilkuran erabaki zuten Miren Urriategi izango dela bake epaile berria. Haren ordezkaria, berriz, Esther Garai izango da. Lau lagun aurkeztu ziren lanpostu horretarako, eta baldintza guztiak betetzen zituztenen artean, zozketa egin zuten udalbatzarrak.

Liburutegiak ordutegi berria izango du gaurtik

Gaur, hilak 24, hasi eta irailaren 12ra arte ordutegi berria izango du Udala Liburutegiak, udako ordutegia, hain justu. Arratsalde zabaldu beharrean, goizez egongo da zabalik, 11:00etatik 14:00etara. Udaltxeak ere ordutegi berria dauka ekain hasieratik irailera arte: 08:00etatik 15:00etara egongo da zabalik.

JAIK

Kalebarrengo San Pedro jaietarako, egitarau zabala prestatu dute oraingo astebururako

A.I.

San Pedro jaiak ospatuko dituzte oraingo asteburuan Kalebarrenen. Gaur, egubakoitza, iluntzean hasiko dituzte jaiok, eta bihar izango da jaiotako egun nagusia, ohiko arbola jasotzearekin, herri afariarekin, suarekin eta sagar dantzarekin.

Ondarreko Gorpuzti jaietarako atera zituzten herriko neska-mutikoez euren jaietako kamisetak, eta oraingo asteburuan jantziko dituzte berriro. Bereziak izaten dira, gainera, Kalebarrengo jaiak: udaren hasiera, ume eta gaztetxo asko oporretan, herriko jaiak ate joka...

Berez San Pedro eguna hilaren 29an den arren, San Martzial jaiekin bat ez egitearren, oraingo asteburuan ospatuko dituzte jaiak Kalebarrenen.


EGITARAU ZABALA

Gaur, egubakoitza, hasiko dira jaiak, 20:00etan; trikitilari gazteek kalejira egingo dute. 22:00etan, berriz, Agurtzane eta Jon Elustondorekin erromeria.

Bihar, zapatua, honako ekitaldiak izango ditugu: 11:00etan, marrazki lehiaketa; 12:00etan, ginkana; 13:00etan, soinujoleekin, kalejira; 16:00etan, umeendako tailerrak eta jolasak; 19:00etan, buruhandiak; 20:00etan, arbola jasoko dute.

Gauean, berriz, herri afaria egingo dute, 21:30ean; ondoren, 22:30ean, Bidusound diskoteka mugikorra etorriko zaigu. Sua ere egingo dute, noski. Gauerdian, nola ez, sagar dantza ezaguna.

Domekan, azkenik, aipatzekoa da Salam kale antzerkia izango dugula, 18:30ean. 11:30ean, meza, ondoren salda eta txorizoa eta 12:30ean, dantzarien saioa izango ditugu.



Bazkalostean, 15:00etan, dute hitzordua arbolaren bila joateko.

LABUR

Gaztetxokoaren gaineko batzarra, gurasoendako

Martitzenean, hilak 28, gazte txokoaren gaineko batzarra egingo dute, gurasoendako. 19:00etan izango da, Errekaldeko lekalean. Udaleko arduradunek eta Gaztetxoko begiraleek berba egingo dute. Gaztetxoendako zerbitzu horrek aurreko asteburuan bukatu zuen ikasturtea.

Erretiratuen Eguna ospatuko dute hilaren 10ean

Uztailaren 10ean, domeka, ospatuko dute Erretiratuen Eguna. 11:30ean meza izango dute; 14:00etan bazkaria egingo dute eta ondoren, dantzaldia. Bazkarirako txartelak ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean eta 2an salduko dituzte, 18:00etatik 19:00etara, erretiratuen lekalean, 3 eurotan.



Kalebarrengo eta Antiguako balkoi banari eman diete lore ederrenen saria

Aurten beste era batera antolatu dute lehiaketa; ez dituzte alde zaharreko eta berriko balkoiak bereiztu eta alde berrikoak izan dira sariak jaso zituzten biak. Batek, Kalebarrengo balkoi batek jaso du saria, Miren Aiaustui eta Pako Legorbururenak (ezkerrean). Beste saria, berriz, Antiguako beste balkoi bati eman diote;

Juanito Lezeta eta Kontxita Alberdiren loreei, hain justu. Atzo, eguena, ziren sariak banatzekoak, San Joan bezperako ospakizunen barruan. 90na euro jaso zituzten. Aipatzekoa da sari horiekin Udalaren helburua dela herritarrek bultzatzea herriaren itxura zaintzera, eta egia esan, balkoi benetan ederrak ikusten ditugu./A.I.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

**MUJIKA
HARATEGIA**



**Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI



**taberna
jatetxea**
Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko ekainaren 24a/ 233. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Herritarren foroak atera ditu hainbat ondorio

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udalalde 21 Debagoiena egitasmoaren baitan Udalak foro bat eratu zuen herritarren partaidetza bultzatzeko. Bertan, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren gaineko kezak eztabaidatu eta hainbat ondorio atera dituzte.

Herritarren foroak hainbat batzar egin ditu. Udaleko, Elgeta Auzolanian plataformako, Guraso Elkarteko, Maya ingurumen taldeko, Herri Eskolako eta Euskal Herrian Euskarazeko ordezkariak elkartu dira, guztira 12 lagun.

Batzarretan herriaren aukerak, mehatxuak, indarrak eta ahultasunak aztertu eta lehenengo fasea amaituta hainbat ondorio atera dituzte.

AUKERAK

Herriaren aukerak aztertu dituzte lehenengo: etxebizitzari dagokionez, eskaintza handitu egin daitekeela ikusi dute, hutsik daudenak kontrolatuz eta lokalak etxebizitzara bihurtzeko aukera arautuz zein alokairua sustatuz. Etxebizitza sozialen aukera ere badago.

Mugikortasun arloan ere ikusi dituzte aukerak: garraio publiko zerbitzua hobetzea enprestarako autobusak jarritz; hainbat gunetan autoen erabilera mugatzea (Asentzio, San Roke ostea, Azkonabieta eta Ugarritza); eta oinezkoen segurtasuna hobetzea eta haiei zerbitzuak eskaintzea.



Etxebizitzaren gaia izan da herritarren foroak landu duenetako bat.

MEHATXUAK ETA INDARRAK

Industrialdearen hazkundea (1.000 lanpostu daude 1.000 biztanleko herrian); lehen sektorearen gainbehera; eta biztanle berrien integrazio eskasa, berriz, mehatxutzat jo ditu herritarren foroak.

Bestalde, badira herriari indarra ematen dioten hainbat puntu: udal zerbitzuen kalitatea; bizi kalitate altua; langabeziarik eza; ingurune natural erakargarria; kokapen ona; eta kultur jardueren ugartasuna.

AHULTASUNAK

Industria arloan hainbat puntu ahul ikusi dituzte: kutsadura eta etxeetatik gertu egotea, esaterako; ur eta elektrizitate sareetan ere badira gabeziak; herriaren hazkundea ere sortu du ahultasunik; autoaren gehiegizko erabilera; hainbat zerbitzuren eskasia; euskararen erabileraren jaitziera... dira beste hainbat oztopo.

Orain etena egin eta irailetik aurrera berriz elkartuko da foroak, egitasmoaren bigarren faseari ekiteko.

PILOTA

Gaur ETB-Kantxako bigarren finalerdiak

I.A.

ETB-Kantxa Lau t'erdiko Pilota Txapelketa azken txanpara bidean da. Joan zen asteburuan jokatu ziren lehen finalerdiak, eta gaur gauean bigarrenak jokatu, uztailearen 1eko finalerdiak txapela janzteko borrokan zein pilotarik jardungo duten erabakiko da.

Joan zen asteburuan jokatuak finalerdiak Idoate eta Berasaluze sailkatu ziren ETB-Kantxako finalerdiak, kadete mailan eta 23 urtez azpikoetan hurrenez hurren.

Txapela janzteko faboritoa zen Beroiz, baina aurtengo txapelketan ezustekoa eman duen Idoatek kendu zion kanporaketan


finalerako txartela. 23 urtez azpikoetan Berasaluze sailkatu da finalerako Argoteri irabazita.

BIGARRIN FINALERDIA


Gaur, barikua, jokatu dira, Udal Pilotalekuan, 20:00etan hasita falta diren finalerdiak. Kadete mailan Mendizabalek Peñasen aurka jokatu du; 23 urtez azpikoetan, berriz, Urrizelki eta Lasa izango dira aurrez aurre.

Antolatzaileen esanetan, finalerdiak nahiko parekatuak izan daitezke, pilotarien maila antzerakoa baita. Beraz, zaila da esaten zeinek jokatu duen finala.

Finalistak edozein direla ere, partidu politik ikusteko aukera izango da, bi mailetan joko polita erakutsi baitute pilotariek txapelketan barrena.



Finalerdiak gaur jokatu dira; finalak, berriz, uztailearen 1ean.



TAPEM S.A.

Trokela eta estanzak
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALISTAK

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 943 76 80 50 / 78 90 31
Faxa: 943 76 82 43

Jai zoriontsuak
igaro ditzazuela!



ANJACE
Industriak S.L.
Burdineria lantegia

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Pagatza poligono industrialia • Elgeta
Tel.: 943 78 91 11 • Faxa: 943 78 91 09



TXIRRINDULARITZA

Zortzi elgetar asteburuan Quebrantahuesos eta Treparriscos bizikleta probetan ibili dira

IRATI AGIRREAZALDEGI

Joan zen asteburuan jokatu ziren Huescako Sabiñanigo herrian Quebrantahuesos eta Treparriscos bizikleta proba gogorak. Faka-faka taldeko zazpi zikloturista bertan izan ziren, baita Jone Muxika ere. Hark marka hautsi zuen, gainera, Treparriscos proban.


Sona handiko proba da Quebrantahuesos zikloturisten artean, proba gogorra delako batez ere. Joan zen asteburuan jokatu zen Huescako Sabiñanigo herrian hasi eta bukatu zen lasterketa. 205 kilometroko ibilbidean, txirrindulariek Somport, Marie Blanche, Portalet eta Hoz de Jaca portuak igo behar izan zituzten.

Aldapa gogor horietan ibili ziren 6.000 txirrindulari, tartean hainbat elgetar. Faka-faka talde-

ko zazpi txirrindularik hartu zuten parte. Oskar Askasibar izan zen koadrilako lehena helmugan zazpi ordu, 11 minutu eta 20 segunduko denbora eginda. Joseba Muxika, Etor Sarasua, Javier Larrañaga, Oier Villa eta Igor Irazabal haren ostean ailegatu ziren helmugara, esandako hurrenkeran. Inaki Askasibarrek lasterketa utzi egin behar izan zuen.

JONE MUXIKA LEHENENGO

Elgetarrekin Sabiñanigora joan eta Treparriscos proban hartu zuen parte Jone Muxikak. 90 kilometroko ibilbidea bi ordu, 41 minutu eta 26 segundoko markarekin egin zuen. Horrela, marka hautsi zuen Jonek, iaz baino hogein minutu gutxiago behar izan zituelako. Lehenengo emakumeari emandako garaikurrarekin pozik bueltatu zen etxera.



Faka-faka taldeko txirrindulariak Jone Muxikarekin.

LABUR

Gas mozketa astelehenetik martitzenera

Udaletik jakinarazi digutez, datorren ekainaren 27tik 28ra bitartean gas horniduran mozketa egingo dute. Astelehen gaueko zortzietatik martitzen goizeko hamarretara arte kenduko dute gasa. Mozketa honek herri osoan izango du eragina. Gasa kentzearen arrazoia da saihebidetako lanak direla eta gas sarean aldaketak egin behar dituzte; ondoren, estankotasun probak egingo dituzte. Repsol enpresa arduratzen da Elgetan gas zerbitzuaz.

Eskola Txikien Jaiko zozketak baditu irabazleak

Eskola Txikien Jaiko zozketan saritutako zenbakiak aditzera eman eta opari sorten ia irabazle gehienak azaldu dira. Seigarren saria falta da emateko, eta txartela Elorrioko Eroskiko biltegian saldu da. Gainontzeko sarien irabazleak honako hauek dira: Garbiñe Irazabal (Elgeta) -bi sari jaso ditu-, Mikel Arkarazo (Elgeta), Maite Alkorta (Abaltzisketa) eta Edurne Sarasqueta (Bergara).

Jaietako herri afariko txartelak salgai daude

Herri afaria izango da jaietako egunean, mozturro desfilearen ostean. Joan nahi dutenek txartelak Haizean eta Espaloian eros ditzakete. Nagusiek 12 euroren truke barazki menestra urdaiazpikoarekin, txahal-erredondoa txanpinoi eta patatekin eta tarta jango dituzte. Umeendako menu berezia izango da: espagetiak, oilasko izterra eta izozkia; hauek bederatzi euro ordainduko dituzte.

'El dia de mañana' ekaineko azken filma Espaloian

Ekainaren 29an hilabeteko azken film emanaldia egingo dute Espaloian 21:30ean. Zineklubeko saio honetan *El dia de mañana* filma ikusteko aukera izango da. Efektu berezi landuak ditu eta bi ordu pasatxo irauten du. Zientzia fikzioa eta akzioa dira filmaren ardatzak. Lurraren gehiegizko berotzearen ondorio bortitzak erakutsiko dizkigu *Independence day* filmaren zuzendari izan zen Roland Emmerich-ek.

ADINEKOAK

Herri Zentroa eta etxez etxeko zerbitzua, enpresa baten esku

IRATI AGIRREAZALDEGI

Herri zentroaren eta etxez etxeko zerbitzuaren kudeaketa hemendik aurrera enpresa bakoaren esku lagatzea erabaki du Udalak. Horretarako, lan horiek egingo dituen enpresa aukera-

tzen dihardute egunotan, eta aurki erabakiko dute. Izan ere, hiru proposamen aurkeztu dituzte Udalean eta egokiena zein den aztertu behar dute.

Orain artean, Bergarako Goiz-Argi enpresak izan du etxez etxeko zerbitzuaren ardura; Herri

Zentroaren zaintza, berriz, Bihar-ko Gipuzkoa enpresa donostiar-rrak egin du.

ONURAGARRIA DENENDAKO

Bi zerbitzuak bateratzeak enpresarendako ez ezik Udalarendako ere onuragarria izango dela esan

digu Udaleko Gizarte Ongizate Saileko teknikariak.

Beraz, behin erabakia hartuta, enpresa bakarrak egingo ditu Eguneko Zentroko lanak; eta beharra duten adinekoen ere etxean bertan emango diete eskatutako laguntza.

IRAMA
ELEKTRIZITATEA
Instalazioak eta mantentze lanak

Zorionak, elgetar guztioi!

Salbador 3 • Elgeta
Tel. eta faxa: 943 78 90 57 • Poltsikokoa: 619 69 23 36

ONDA
janari denda

M. Asun Agirrek zorionik beroenak opa dizkizue!

Salbador 26 • ELGETA • Tel: 943 768 190

OSTATU JAIETXEA

JAI ZORIONTSUAK GUZTIOI!

Gudarien Bidea 4, ELGETA • Tel.: 943 76 80 23

JECOEN
DARDARATZE ETA LEUNTZE METALIKOAK


Ondo ibili jaietan!

Salbador 21 • Elgeta
Tel. eta faxa: 943 76 81 74

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 24a / 12. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxe: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05



OIHANA ELORTZA

Guren, Mikel eta Unai, Oñatiko Gazte Asanbladako hiru ordezkari.

GAZTE ASANBLADA/ Gazte Eguna antolatu dute uztailearen 2rako

Gaztetxea lortzeko lanean dabil Gazte Asanblada

OIHANA ELORTZA

Gaztetxea lortzea da Oñatiko Gazte Asanbladako helburuetako bat. Udalarekin orain arte egin dituzten saiakerek huts egin dute, eta Gazte Asanbladak aurrera jarraitzen du aldarrikapen horrekin. Antolatu dituzten ekitaldietako bat da Gazte Eguna.

Gaztetxea lortzea du helburu Oñatiko Gazte Asanbladak. Ekitaldi dezente antolatu dituzte horri lotuta eta horietako bat da uztailearen 2rako antolatu duten. Gazte Eguna.

Gaztelekuaren barruan lan egiten zuen lehen Gazte Asanbladak. Gazte gehiago sartzean, aldatu egin zen eta orain San Martinen batzen da martitzenero eta zapaturo Gazte Asanblada. "Asanbladaren lehengo eta oraingo jarrerak ez dira berdinak. Lehen mugatuta geunden ekintza mota batzuetara eta ezin genituen muga horiek gainditu. Gaztelekuetik atera ginenetik askatasun handiagoarekin pentsatzen ditugu ekintzak", diote ordezkariak.

GAZTETXEA

Bizikleta poteoa, Gorpuzti jaietako prozesio itxura zuen manifestazioa eta Korrikako kilometroa dira orain arte Gazte Asanbladak egin dituen ekintzetako batzuk. Aurrerantzean ere gertu dago ekintzak antolatzeke, ideiak ere baditu, baina tokia behar dutela dio. "Asanbladaren

jarduna asko aberasten du egoitza batek eta Gaztetxe baten beharra ikusten dugu. Gaztetxe hitza, gainera, Oñatin erabili ei zuten lehendabiziko aldiz", diote gazteek. Orain, herriko hainbat eragilerekin hitz egingo dute euren filosofia erakusteko. Batez ere, herriari erakutsi nahi diote Gazte Asanblada herriaren parte dela.

Gazte Eguna uztailearen 2an

Hauxe da Gazte Egunekeo egitaraua:

10:00: Txupinazoa

11:00: Trikibertso poteoa herriko kaleetan eta tabernetan zehar.

13:00: Herri jolasak eta kirolak plazako frontoian.

14:30: Herri bazkaria plazako frontoian. 225 lagunendako tokia dago. Txartelak Arrano eta Pako tabernetan daude salgai. Txartel barik gelditzen denak ogitartekoa eraman dezake eta bertan jan.

16:30: Kontzertuak. Talde hauexek joko dute: Triskantza, Golpe de Estado, Show Business, Krimen, Sospechosos, Potemkin, Kultur L.A.B, Amonal, Nadek, Pasmaticos, Malenkonía, Drakes eta DJ Rat-Man. Kontzertu guztiak doan dira. Talde guztiak Oñatikoak dira.

Gauean zehar: Txokolatea eta jolasak.

KZGUNEAK

Ordutegi berria du KZguneak uztailean

O.E.

Egubakoitzetik aurrera ordutegi berria izango du KZguneak. Uztailean, 16:30etik 18:00etara egongo da zabalik arratsaldeetan. Eguerdiko bi orduetan, 14:00etatik 16:00etara, herriko dendariendako ikastaroak emango dituzte. Goizeko ordutegia, berriz, orain arteko bera izango da: 09:00etatik 13:00etara. Kon-

tuan izan behar da ikastaroak egonez gero, itxita egongo dela KZgunea 11:00ak arte.

IKASTAROAK

Hainbat ikastaro emango dituzte uztailean ere. Adibidez: Michelin gida erabiltzen ikasteko, etxebizitza aurkitzeko, posta elektronikoa erabiltzeko eta egunkaria irakurtzeko. Enpresa ikastaroak ere emango dituzte.



Uztailearen 1etik aurrera izango du ordutegi berria KZguneak.

LABUR

500 bat akzio ditu Realak Oñatin eta jabeek egunean bozkatu beharko dute

Datorren egunean, ekainak 30, da Realeko Administrazio Kontseilu berria aukeratzeko eguna. Oñatin 500 akzio inguru ditu Realak eta euren jabeek ere datorren egunean izango dute euren botoa emateko aukera. Bi hautagai daude Realeko presidente izateko: Miguel Fuentes eta Miguel Santos. Hautagai biak izan dira Oñatin euren programa eta asmoak azaltzeko. Fuentes ekainaren 9an etorri zen eta Santos ekainaren 22an.

Elkar Hezi ikastetxeak tailerrak eta afaria antolatu ditu bere eguna ospatzeko

Aurten ere Elkar Hezi ikastetxeak bere eguna ospatuko du kurtso amaieran. Gaur, egubakoitza, ospatuko dute. 18:00etatik aurrera tailerrak egingo dituzte umeendako eta iluntzean, afari-merienda egingo dute ikastetxeko ikasle, guraso, irakasle zein Santa Mariako auzokideendako. Trikitilariak eta kontzertuak izango dituzte Kultur L.A.B eta Skillers taldeek joko dute.

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Jantzitegi apal tolesgarriekin



Zoru aukera zabala
Tarimak
Parket flotatzaileak, bernizatuak
eta estratifikatuak



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
· AROZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



IRENE UNZUETA FISIOTEPEUTA

Tramendu osteopatikoa




Loreen bidezko terapia

Txanda hartzeko deitu:

Tel.: 943 76 59 39

San Martin Osasundegia • Ramon M^a Lili 2





PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK
EGUREN
Irala 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK
JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA
AIERDI AHOLKULARITZA
Artekalea 1. 943 76 03 50
TBG AHOLKULARITZA
Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK
RAFAEL ARANBURU
Irizar 5. 943 76 10 81
BERNARDINO MAIZTEGI
Irizar 5. 943 76 10 81
JUAN ANTONIO SIERRA
Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK
JESUS LASKURAIN PEREZ
Zurradero 4. 943 76 53 53

Goibekokale

ELGETA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 24a / 232. zenbakiaren gehigarri berezia



FERIXANAGUSIA05

JATORRIZKO ARGAZKIA: GOIENKARIA

ZORIONAK ELGETAR GUZTIOI!



MAKINA-ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta.

EGITARRAUA

EGITARRAUA

Eguena, 30

14:00 ETXAFUEGOAK ETA KANPAIAK
16:00 ZIRKU TAILERRA umeendako plazan.
20:00 MOZORROEN JAITSIERA (Erdi Aroa).
21:30 HERRI AFARIA.
Ondoren, Jolasak eta musika.
00:00 LARRAIN DANTZA, Lizarrako Sede taldeko gaita-joleekin.
00:15 DRINDOTS taldearekin dantzaldia.



ZIRKU TAILERRA SEBASTOPOLEKOEKIN.

Egubakoitza, 1

Erretiratuen eguna
11:00 ESNA DEIA txistulariekin.
11:00-14:00 UMEENDAKO JOLASAK. Puzgarriak, bigantxa mekanikoa eta kartak kiroldegiko kantxan.
12:00 MEZA nagusia.
13:00 BERTSOLARIAK *Mañukorta* eta Joxe Agirre.
14:00 Erretiratuendako BAZKARIA Espaloian.
16:30-18:30 UMEENDAKO JOLASAK.
18:30 BURUHANDIAK.
19:00 ZEZENAK.
19:00-21:00 SUGARRI TXARANGA
20:00 EUSKAL PRESOEN ALDEKO EKITALDIA.
20:00 Erretiratuendako BOLO TXAPELKETA.
22:00 ETB KANTXA PILOTA TXAPELKETA.
23:00 IZOTZ taldearekin dantzaldia.
00:00 KONTZERTUA gaztetxe kanpoan: Tuboeskapi, Anger eta Rotten Teenager.
05:00 TRIKIPOTEOA.



ERRETIRATUEN BAZKARIA ESPALOIAN.

Zapatua, 2

11:00 ESNA DEIA trikitilariekin.
11:30 UMEENDAKO JOLASAK: oilo harrapatzea, igel jokoa, urez betetako puxikak...
13:00 ASTO LASTERKETA, herriko kaleetan barrena.
14:30 HERRI BAZKARIA: paella erraldoia. Edaria eta postrea norberaren kontu.
17:00 Koadrilen arteko JOKOAK.
17:30-20:30 IRULIXA TXARANGA. Jolasen garaian eta zezenen denboran jardungo dute.
17:00 ZEZENAK.
23:00 GAUBELA taldearekin dantzaldia.
23:00 BOLO TXAPELKETA.
00:00 KONTZERTUA gaztetxe kanpoan: Papparazzi, Tremendamente eta Las tietes Quecas talde kataluniarrak.
Ondoren, DJ BULL gaztetxean,



KOADRILEN ARTEKO JOKOAK PLAZAN.

Domeka, 3


Azoka nagusia
09:00 AZOKA NAGUSIA. 25. urteurrena. Plazan artisaauak eta baserriko produktuak; Berrañdokuan, ganaduak.
18:00 IPARRALDEKO DANTZAK. Kiroldegiko kantxan
21:00 SARDINA JANA.
22:30 KALE ANTZERKIA: *Carbon club* lana eskainiko du Markeliñe taldeak.



IPARRALDEKO DANTZAK KIROLDEGIAN.

JUAN BERISTAIN

NEKAZA/TRESNAK



Oidor Berriozabalbeitia, 14
48230 Elorrio (Bizkaia)
Tel/Faxa: 94 623 18 03

**Salmenta
eta
konponketa**



HONDA
STIHL
SAME
BCS
VIKING

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue
elgetar guztioi eta bertaratzen zaretenoi.*

Ondo pasau!

ELKARRIZKETA GREGORIO LARRAÑAGA 'MAÑUKORTA' BERTSOLARIA

“Bertsolaria parranda-zalea dela esaten da; hala behar du, gainera”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Badira urte batzuk elgetarrek Mañukorta bertsotan entzun ez dutela, ez behintzat herrian. Aurten, ordea, jaietako erretiratuen egunean hitzordua du markina-rrak Joxe Agirrekin batera plazan jarduteko. Gogotsu etorriko dela esan digu.

Aurrez Elgetan bertsotan jardundakoa zara. Zer moduzko plaza da?

Lehen sarritan kantatutakoa naiz, baina azken hamar urteotan ez naiz bertan bertsotan izan. Orduan plaza ona zen. Afaria egiten genuen eta haren ostean bertso saioa. Ordutik hona ez dakit aldaketarik egin duen, baina, hala ere, gu gogoz joango gara, deitzen diguten toki guztieta-
ra joaten garen moduan.

Joxe Agirre izango duzu kantu lagun. Bikotekide egokia da?

Ongi konpontzen naiz harekin, gainontzeko bertsolariekin bezala. Betiere, hobeto gehien jarduten duzun horrekin, baina Agirrekin saio asko eginda-

koa naiz eta elkarren trankak ezagutzen ditugu. Agirrek asko daki, gainera, bai bertsoari dagokionez eta baita jaien gainean ere.

Gustuko duzu jaietan bertsotan egitea?

Bai, horrela ikasi genuen guk bertsotan, eta inguru horretan moldatzen gara ondo. Toki batzuetan eguerdi partean bertsotan egin eta alde egiten dugu; beste batzuetan, berriz, bazkaltzen gelditu eta bazkalostean ere jarduten dugu bertsotan. Horrelako saioak ditut nik

“Jaietan jendeak zer entzun nahi duen, hori kantatzen saiatzen gara bertsolariok”

“Telebista ez egoteak ez du esan nahi gutxiago nabilenik bertsotan”

gogokoan. Jaietan jendeak zer entzun nahi duen, hori kantatzen saiatzen gara, entzulearen gustura lagatzen.

Eta zer entzun nahi du ba jendeak?

Ahal bada hari eta herriari buruzko gauza onak entzun nahi dituzte. Horretaz gain, inguruan ikusten dugunari buruz kantatzen dugu gehiengotan, herriko apaiza dela, jaietan pertsonaia bitxiren bat kalean dabilela, dantzariak direla, saioaren aurretik herri kirolak izan direla... Jaien bueltako kontuak hartzen ditugu gaitzat, eta hori gustatzen zaio jendeari. Ikusten duen hori bertsotan entzutea.

Toki askotako jaietan ibiltzen zara. Nongoak dituzu gogokoan?

Badira tokiak urte askoan bertsotara joan naizena, eta ez daukat bat aukeratzetik. Hala ere, trikitilari-ekin egiten ditugun herri bazkari eta afariak gustuko ditut; herriko jaietan horrelakorik badago, ni pozik.

Mañukorta bertsotan gutxiago dabilela entzun dugu. Hala da?

Baliteke jendeak irudi hori izatea, baina ni lehen beste nabil bertsotan. Telebistan gutxiago agertzeak



ez du esan nahi ez nabilenik. Normala da txapelketetan eta jaialdi handietan dabilzanek sona izatea, baina nik txoko ezezagunetan kantatzen dut; askotan nahiago dut, gainera.

Esaten da bertsolaria parranda-zalea dela. Horrela da benetan?

Hala behar luke. Bertsotara egun osorako joan eta parranda-zalea izan ezean, zaila da agoantatzea. Jai

giroan gustura egonez gero, igarri gabe pasatzen dira orduak; hori ona da herriarendako eta norberarendako. Hala ere, ez da gauza bera parranda-zalea eta mozkorra izatea.

ILE

♀♂

ILE APAINDEGIA

Andra Mari plaza 2
Tel.: 943 76 81 97 • Elgeta

Marijok eta Josetxok jai zoriontsuak opa dizkizute!

Arantzeta masajistak

- Osteopatia
- Kirol masajea
- Kiromasajea

Ondo ibili jaietan!

Salbador 28 • Tel.: 943 76 80 54 • 943 76 81 90 • ELGETA

AZOKA NAGUSIA

Ganaduak ikusgai 25 urtetan Elgetako ferian


Berraondokuako aparkalekuan 150 buru inguru izango dira aurtengo ganadu azokan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Azoka Nagusikoak dira Elgetako jaiak, beraz, azokarik ezin falta. Domekan, ganaduak izango dira ikusgai. Gainera, 25 urte beteko dira aurten azoka berreskuratu zutenetik.

Entzuna dugu garai batean sekulako ganadu azoka egiten zela Elgetan, inguruotako handiena, eta orduan batik bat idiak izaten zirela ikusgai. "Egun batzuk lehenago ganaduak ekarri eta Intxorta magaleko zelaietan egoten ziren azokara eraman artean", esan digute Migel Oiangueren eta Jose Arantzabal herriko ganaduzaleek.

Azoka hura antolatze-ari utzi egin zioten, ordea, eta hamar urteko etena izan zen. Migelek eta Josek herrian ganadu feriarik ez zela-eta, penatuta, berreskuratzea pentsatu zuten. "Gustuko dugu ganadua, eta pena hartzen genuen azokarik ez zego-



Ganaduak Berraondokuan izaten dira ikugai; inoiz Artekalean ere ipini izan dituzte.

**Orain dela
25 urte
berreskuratu
zuten azoka**

elako. Beraz, azokaren ideiarekin alkatearengana jo genuen eta hark onartu egin zuen".

Aurten 25 urte beteko dira bikote horrek ideia izan zuenetik; eta urteotan izan da aldaketarik

**Ganaduak
ikusteko ez
ezik traturako
ere izaten da**

ZALETASUNA EZINBESTEKOA
Gaur egun, 100 burutik gora ekartzen dituzte, baina ez omen dago lehenengo azoka harekin alderatzerik. "Lehena oso handia izan zen eta probintziakoa egin zenean izan zuen

arrakasta ere azpimarratzekoa da", esan digute Josek eta Migelek.

Hala ere, azokaren sona eta ganaduen kontua pixkanaka behera doa, euren esanetan. "Jendeak ez du ganadurik nahi etxean.

Aurtengo azokan ganadu gehiago Berraondokuan

Izango da berrikuntzarik aurtengo azokan. Iaz 120 buru ekarri bazituzten, aurten ganadu gehiago ikusiko dute Berraondokuan joaten direnek. Izan ere, 175 buru egongo dira. Berrikuntza nabarmenena da aurten hamar idi pare ekarriko dituztela Gipuzkoako hainbat txokotatik. Horrela, gogoratu nahi dute orain dela urte asko Elgetan egiten zen ganadu feria, orduan ere idiak izaten baitziren ikusgai. Ganadua hesi artean ipini izan dute orain arte, baina aurten hesitura bereziak ipiniko dituztela jakinarazi digute. Lurrean zuloak egin eta bertan burdin batzuk sartuta ipiniko dituzte hesiak. Zulo horiek datozen urteetan ere hesiturak ipintzeko baliagarriak izango dira.

Ganaduak ez ezik bestelako kontuak ere ikusi ahal izango dira azokan. Plazan eta inguruetan baserriko produktuak eta artisau lanak ipiniko dituzte erakusgai; guztira 65 postu egongo dira. Baserriko tresneria, berriz, Salvador kalean egongo da, eta makineria Berraondokuan ganaduekin batera. Baserriarrendako eta giroa gustuko dutenendako aukera polita.

Jai zorientsuak izan ditzazuela elgetar guztiok!



Elgetako EAJ

AZOKA NAGUSIA

Baserritik bakarrik bizi denik ez dakit inor bada goen herrian. Beraz, horrek eragina izan du azokan. Gazteek ikusi dute ganaduak ez duela dirurik ematen, eta ez dute langintza horretan jarraitu".

Zaletasuna izan da Migel Oiangurennek eta Jose Aranzabalek azoka antolatzen jarraitzearen arrazoia. "Zaletasuna ezin bestekoa da, eta gustukoa izanez gero jarraitzen zaio. Gaintzean, aspaldi lagata genuen guk ere azoka".

LEKUA

Urtē hauetan guztietan azoka herriko hainbat tokitan egin dute. Artekalean egin izan da inoiz eta beste lekuren baten ere; azken urteetan Berraondokuan egin izan da, eta leku egokia da, antolatzaileen esanetan. "Azokarako tokia guk geuk prestatzen dugu aurreko egunean. Buelta guztian soka eta hesiak ipini...".

Denetarik behiak izaten dira azokan, eta aurten gainera inoiz baino gehiago ikusiko ditugu. Josek pirenaiarra arrazako behiak eramango ditu eta Migelek askotarikoak.

Azoka ganaduak ikusteko izaten da batik bat; baina jendeak traturako ere aprobetxatzen du aukera. Txahalak, esaterako, erosten ditu jendeak, baita behiak ere.

Ganaduzale eta tratua, beraz, ugari Elgetako Azoka Nagusian.

ELKARRIZKETA

MIGEL OIANGUREN ETA JOSE ARANTZABAL / GANADU AZOKAREN ANTOLATZAILEAK

"Lehen azokan herriko ganaduzale guztiak batzea zen gure asmoa"

IRATI AGIRREAZALDEGI

Orain dela 25 urte hasi ziren ganadu azoka egiten, hainbat urtetako etenaren ostean. Ideia Migel Oianguren eta Jose Aranzabalek izan zuten, eta eurekin berba egin dugu.

Nola prestatu zenuten lehen azoka hura?

Jose: Gure asmoa zen herriko ganaduzale guztiak batzea, baina seik bakarrik esan zuten baietz. Gaintzekoek ez zuten ganaduak azokara ekarri nahi izan; uste zuten ez zuela arrakastarik izango, baina oker zebiltzan, oso arrakastatsua izan baitzen.

Migel: Lehen urtean kanpotik ekarri genituen ganaduak; garraio gastuak eta eskupekoa baino ez zitzaie ordaindu haiei. Gaur egun, ganaduak azokara eramatearren diru saria jasotzen dugu denok.

Zuen ganaduak ere izaten dira azokan?

Migel: Bai, guztira 100 burutik gora izaten dira. Horietatik batzuk herri-



tarrok eramandakoak dira, lauk, hain zuzen ere. Guk behiak eramaten ditugu, baina badira behorrek azokan ikusgai ipintzen dituzten elgetarrak ere.

Elgetako azokara ez ezik beste toki batzuetara ere eramango dituzue ganaduak, ezta?

Jose: Bai, hainbat tokitara eramaten ditut

ganaduak: Bergarako feriara, Ordiziakora, Tolosara... Bost ganadu txukunenak aukeratu eta lehiaketara ere aurkeztu ditut.

Aurten ez duzue zorte onik izan ganaduekin zuek biok?

Migel: Zorte txarra izan dugu aurten, bai. Joseri hiru txahal hil zaizkio eta niri txahala egiteko zegoen behi bat.

Lan gogorra da, beraz, ganaduzalearena.

Jose: Gogorra da, dudarik gabe. Eguraldiak ere askotan ez du laguntzen: lehortea dela, euri asko egin duela... Gu gazte denboran hasi ginen honetan, eta gustua hartu genion; baina inoiz, haserre aldian, esan izan dugu, behi guztiak kenduta hobe. Hala ere, oraindik jarraitzen dugu. Erretiratuta gaude eta ganaduekin pasatzen dugu eguna, hori da gure entretenimendua.

Langintza horretan jarraituko dizuenik bada herrian?

Migel: Baten bat izango da agian, baina ez dut uste gazteek lan hau egin nahi dutenik. Beretxina-gak badauzka behiak, eta hari behar bada jarraituko dio semeak; gaintzean, ez dute jarraitzeko asmorik. Zalaletasun handia behar da ganaduekin lana egiten jarraitzeari eusteko.



ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
Tel.: 943 76 82 02 Faxes: 943 76 82 98

Jai zoriontsuak elgetar guztioi!



BARRENENGUA BASERRI TURISMOA

Egoetxeaga auzoa
20690 ELGETA
Tel.: 943 76 82 21

Ondo pasa ferixa nagusian!

MUSIKA

Era askotako doinuak jaietako gauak alaitzeko

Drindots, Izotz eta Gaubela plazan eta gazteendako kontzertuak gaztetxean

I.A./E.M.

Musikak leku berezia du jaietan. Tabernetan ez da jaietako doinurik falta izango eta beste gune batzuetan ere izango dira taldeak: dantzaldiak plazan eta bestelako kontzertuak gaztetxean.

Jaiak egunean hasiko dira, eta lehen egunerako herri afaria dago iragarrita. Afalostean, gorputzari astindua emateko Drindots taldearen doinuak izango dira plazan, gauerdialdera. Udako modako kantuak zein betiko dantzako erritmoak tartekatuko dituzte euren emanaldian. Goierriko taldeak 24 urte daramatza herriz herri eta Elgetan ere egondakoak dira aurretik. Maritxu eta Ebamirentxu euren kantu ezagunak ez dira falta izango egueneko emanaldian.

PLAZAN ETA GAZTETXEAN

Barikua ere dantzarako egun aproposa izango da.



Drindots taldeak udako modako kantuak eskainiko ditu egunean. Goierriko taldea beteroenentakoa da berbenetan.

Goierriko Drindots taldeak alaituko du egueneko dantzaldia: barikuan eta zapatuan, Izotz eta Gaubela izango dira plazan

Tuboskapi, Anfer eta Rotten Teenager barikuan, gaztetxean; zapatuan Kataluniako hiru taldek joko dute han

Taldearen izena Izotz bada ere, doinu beroak eskaintzeko dituzte plazan, 23:00etan. Kantu herrikoiekin hasiko dute emanaldia, eta bertsiok egingo dituzte amaietan, tartean The Police, Bob Marley eta AC/DC taldeenak. Hain zuzen ere, teklatuak jotzen dituen Peitoren esanetan, "15-50 urteko jendea erakartzea da gure asmoa". Hernaniarrek lehen aldiz joko dute Elgetan.

Dantza nahikoa egin ostean, gaztetxe aldamenean bestelako musika izango da barikuan, gauerdian. Ondarruko Tuboskapi taldeak ska emanaldia egingo du. Eurekin batera jardungo dute Arrasateko Anfer taldekoek; musika ordea, bestelakoa da, metal erakoa, hain zuzen ere. Rotten Teenager ere izango da gaztetxean.

Zapatuan, plazan, Gaubela taldea izango da 23:00etan; gaztetxe kantonan, berriz, Kataluniako Papparazzi, Tremendamente eta Las Tietes Quecas. Jarraian, DJ Bulle arituko da gaztetxean bertan goizaldera arte.

autopullmans

Araba

Jai zoriontsuak
pasa ditzazuela
elgetar guztiok!

Tel.: 943 76 55 70 ANGIOZAR

SISTECO
MAKINA-ERREMINTAK

Makina-erreminten salmenta,
laguntza teknikoko zerbitzua (SAT)
eta berreraikuntza

Jai zoriontsuak guztioi!

ANTZERKIA

Jaiak amaitzeko, kabaret itxurako antzerkia plazan

Bizitzaren metafora egingo dute Markeliñeok meategiko gizon-emakumeetan oinarrituta

IRATI AGIRREAZALDEGI

Azken urteetan bezala aurten ere jaiak amaitzeko ikuskizun berezi bat izango da. Domeka gauean Markeliñe taldeak *Carbon Club* antzezlana egingo du herriko plazan.

Meategiko ikatzaren hautsez tindatutako ikuskizuna eskainiko du Markeliñek. Keinuetan oinarritutako lana da. Soinudun ikuskizuna, piztua, pasio handikoa; piroteknia erabiltzen dute horretarako. Meategiari buruzko ikuskizuna da eta era berean bizitzaren gaineko metafora ere badena. *Carbon Club* beste ezer baino gehiago meategiko gizon-emakumei eskainitako omenaldia da.

MEATEGIKO KONTUAK


Legenda batek dio meategia hain dela iluna, itzalak ere haien jabeengandik galdu egiten dira. Meatzari gazte bat da antzezlane

protagonista: galdutako itzalen moduan ibiliko da meategiko galeriatan barrena ezinezko irteera baten bila. Galerian, urrunean, neoizko argiak ikusiko ditu. Gortina zeharkatu ahala, *Carbon Club*-era iritsiko da, meatzariak -biziak zein hildakoak- putzuan bizi izandakoak kontatzen dituzten tokira.

Ikuskizuna iluna izango dela dirudi, eta une batzuetan hala da. Baina, era berean, argia du; pirotekniaren argia. "Piroteknia noizean behin erabiliko da, eszenak indartzeko eta irudien karga dramatikoaz azpimarratzeko", esan digute Markeliñeok.

Euren esanetan, "gure estetika ezusteen eta erritmoen zain dauden ikusleengana bideratuta dago, baina ez dugu baztertzeko meatzarien istorioak kontatzerik; aldarrikapenean, adiskidetasunean, ausardian, gizatasunean zein gerran oinarritutako istorioak izango dira".

Protagonistek funtzio bat interpretatuko dute taulara gainean: bizitzaren fun-



Kabaret itxurako ikuskizunean bizitzaren metafora antzeztuko dute Markeliñeok.

tzioa. Antzezpena eta bizi-tza nahastu egiten dira, pertsonaiak ere nahasten diren bezala, ia gauza bera baitira, azken finean.

Honela, kabaret itxurako ikuskizunean bizitzaren metafora egingo dute Markeliñeko aktoreek. Guztira, zortzi izango dira:

Juanjo Otero, Ana Martinez, Pako Revueltas, Nagore Navarro, Alberto Quintana, Soledad Carril, Itziar Rekalde eta Nacho Gomez.

Markeliñe: 15 urte eta ilusio asko

Markeliñeren ikuskizun guztietan hainbat elementu errepikatzen dira: sorkuntza lan originalaren aldeko apustua eta kode pertsonalaren bilaketa eszenan; baita antzezleek keinuaz egiten duten erabilpena ere. Ikusmenean oinarritutako antzerkia lantzen saiatzen dira, eta horretan nagusi da sorpresa, bai antzezele aldetik baita eszenografiaren aldetik ere. Markeliñek ez du hitza askorik erabiltzen, baina ikuskizunetan gauza asko esaten ditu. 1986. urtetik hona aretoko ikuskizunak, haurrentzako lanak eta kale antzerkiak sortu eta ekoiztu dituzte. Horrek guztiak antzerkiaren munduan presentzia sendoa eman die. Nazioarteko hainbat jaialditan hartu dute parte; baita makina bat sari eskuratu ere.



INDUSTRIAS EVE, SA

Trokalgintza eta estanzak

ONDO PASAU FERIXA NAGUSIKO JAIXETAN!

Pagatza polig. Elgeta. 943 76 80 99



SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •
- Podologia •
- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •
- Laser bidezko depilazioa •

Ondo pasatu jaixetan!

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



Gora azoka nagusia!



Jangela zerbitzua



Suite antzeko lau logela bikoitz:
bainu osoarekin, telebista, berogailua, etab.

EGUZKITZA LANDETXEA



Eibarrerako bidea z/g Elgeta
Tel.: 943 78 90 84
Sakelakoa: 679 41 66 97